



MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

283 - 2020ko iraila



GUTXIGATIK
BIGARREN MAILAN

Lan eskaintza!!!

Mailope Aldizkariko kazetari izan nahi duzu?

Pertsona euskalduna behar dugu Mailope Aldizkariko kazetari taldean aritzeko. Hilabetekariko edukiak proposatzea eta sortzea izanen da bere eginkizuna.

Kontuan hartuko dira:

- Araitz, Betelu, Lekunberri edo Larraungoa izatea edota eskualdea eta herritarrak ezagutzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Mailope proiektuan jarduteko gogoia.
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo euskara maila egiaztatzen duen titulu baliokidea izatea.
- Komunikazio arloan edo kulturgintzan esperientzia izatea edota horiekin lotutako ikasketak izatea.
- Gidabaimena eta autoa.

Interesa izanez gero, bidali zure hautagaitza proposamena mailope@labrit.net helbidera eta zurekin harremanetan jarriko gara.



AGUNDU MAILOPE
AGUNDU MAILOPE
AGUNDU MAILOPE

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

M. Angeles
Urrizalki
iragarkiak,
berriak,
eskelak...
Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala
948513056
699179437

 **Atabal**
okindegia
Era askotako
ogiak eta gozoak
Etxez etxe
banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151



948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

BERTAKO
HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere
eskeintzen dizugu.
Antigua kalea 7
31890 BETELU

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Ricardo Bosch, J.A. Garai-koetxea, Mikel Irurtia, A. Senosiain, Nere Iriarte, Printza, Ondare Kultur Taldea eta Sara Lobo.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua  de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Iraileko zorion agurrak.

08

ELKARRIZKETA



Okil gibelnabarra.

12

EMOZIOEN MUNDUAN

14

BATZARRE Ura eta Lurra proiektua.

18

ERREPORTAJEA



Rocío Ochoa.

22

KULTURA Euskaraldia.

25

KIROLA



Beti Kozkor.

31

AGENDA





Enai Albeniz Maiza
Abuztuaren 9an, 3urte.
Zorionak Enai!! Muxu handi bat etxeko izarrari, aitatxo ta amatxoren partez!!

Ugaitz Zubillaga Sasiain
Irailaren 21ean, 12 urte.
Ongi-ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxu haundi bat, etxeko guztien partez!!



Eider Azpiroz Arrizurieta
Abuztuaren 2an, 6 urte.
Zorionak gure etxeko printzesari! Espezial pasa dezazula zure urtebetetze egunean! Denok ospatuko dugu elkarrekin! Izugarri maite zaituen familiaren partez!



Joaquin Suarez Irujo
Abuztuaren 14an, 5 urte.
Zorionak eta muxu handi bat! Zure familia osoaren partez.

Ixone Merino Cubillo
Abuztuaren 8an, 9 urte.
Nikole Merino Cubillo
Abuztuaren 9an, 6 urte.
ZORIONAK neskak! Zuen urtebetetzeak festa magiko batekin ospatuko ditugu. Koloretako muxu pila aita eta amaren partez.

Elene eta Danel Aguirrezabala Iriarte
Irailaren 15ean, 5 urte eta abuztuaren 18an 5 urte.
Zorionak bikote!!! Ondo pasa zuen egunean!!! Mundialak zarete. Jarraitu etxeko txokoak alaitzen. Asko maite zaituztegu, aita, ama eta Arribeko familiaren partez.



Ametz Martinikorena Irazu
Irailaren 23an, 14 urte.
Ondo-ondo pasa zure eguna Amets. Muxu bat familiaren partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



31. VIANAKO PRINTZEA SARIA

Aralar Udal Musika Eskolak eta Lekunberri eta Larraungo Udalak bat eginda Berri Txarrak taldearen hautagaitza aurkeztu zuten aurtengo Vianako Printzea Sarira. Jaime Ignacio Del Burgo politikaria eta Carlos Canovas argazkilaria ziren beste bi hautagaiak eta azkenean Carlos Canovasek jasoko du 31. Vianako Printzea Saria.



LAXOA ERAKUSTALDIA

Galtzeko zorian dagoen pilota modalitatea da laxoa, nahiz eta azken urtetan ahalegin berezia egiten ari diren Laxoa Elkarteko kideak Euskal Herriko ondare horri eusteko. Joan den abuztuaren 16an, Lekunberri eta Larraungo udako egitarauaren baitan, Baztan eta Malerrekatik etorritako pilotariek erakustaldia eskaini zuten Uitziko plazan.



HEZKUNTZA EMOZIONALA

Ikasturte honetan, Ibarberrik Nafarroako beste hamaika ikastetxeekin batera, Nafarroako Hezkuntza Departamenduaren Laguntza Programaren baitan, ikasgeletan hezkuntza emozionala sustatzeko martxan jarritako proiektu pilotuan parte hartuko du. Ikas komunitate osoaren ongizate emozionala zaindu eta eskola-jazarpena saihestea du helburu proiektuak.

► Joseba Goikoetxea (Gorriti)



NORMALTASUN BERRIA INPOSATUZ DOA

gelditzeko gainera hartu du asmoa kolpetik aldarazi digute aroa ongi prestatu zuten pizti arraroa.

*Itxialdi luzean ze egun **ASTUNAK** estu jarri gaitu ta orain **OSASUNAK** akaso txertatuta daude **DIRUDUNAK** gainontzekoontzako zain dira **ISUNAK** beti berdinak gara ordaintzen **DUGUNAK**.*

• **Julio Sotorentzako puntua:**
Nola ikusten duzu egungo bizitzaa

• **Oinak:**
Udara, algara, plazara, traba, ilara.

BUZTANGORRIAK, JENDE EKOLOGISTA

Euskal Herrian bi motatako buztangorriak bizi omen dira, alegia, argiak eta ilunak. Azken urteotan, gure etxeari itsatsirik dagoen estalpean, urtero-urtero, buztangorri argiek beren habiak egiten dituzte. Horretan ere, erakusten dute ez direla makalak, izan ere, beren habiak egiteko beti aukeratzten dute habe horizontal bat, goian dagoena, hau da, etxeko horma eta estalpearen artean, barruko aldean; ondorioz, eguraldiaren gorabehera guztietatik ongi babestuta gelditzen dira, eta, baita piztia ororen arriskuetatik ere.

Aurten ere, aurreko urteetan bezalaxe, dagoeneko bi habia egin dituzte, bi bikotek, suposatzen dugu: lehenengoan, bost kume hazi zituzten, eta aspaldian hegaldatu ziren, gu bakarrik utzita, baina, handik egun gutxira, beste bikote bat -pentsatzekoa da- agertu eta prozesu berbera errepikatu zuten, hots, habia eraiki, arrautzak errun, txitatu, txitak jai, janaria ekarri (harrak, intsektuak eta abar), hazi eta bat eta beste. Bigarren txitaldi horretan, gutxienez hiru buru ikusten ziren habia barruan, beraz, hiru txorikume gutxien-gutxienez aritu ziren hazten. Azken hauek ere aspalditxo joan ziren guregandik, beren bizimodua egitera.

Eta oraintxe heldu da, txori bitxi hauen benetako meritua kontatzeko unea, izan ere, beste hegazti batzuen kasuan, esate baterako, enarenean, habia dagoen lekua berehalaxe nabarmentzen da lurrera begiratuta, egiazki, habiaren parean egundoko zirin pila agertu ohi baita, eta, horrexegatik, hain zuzen ere, jende askok ez ditu enarak oso maiteak etxeko teilatu-egaletan, beren parean dagoen zorua zikin-zikin eginda jartzen dutelako. Buztangorri argiek ez, ordea, hauek habiara, kumeei jana eramatera joaten diren bakoitzean, zirinak urrutira eramateko aprobetxatzen dute. Eta nola egiten duten? Ba, oso modu bitxian: gurasoek, txorikumeei beren intsektuak edo harrak eramatera joaten diren aldiro, batez ere, umeak koskortuta daudenean, lehenik eta behin, mokadua mokora ematen diete, eta, jarraian, segundoren bat itxoiten dute, kumeren batek ipurdia atera eta bere zirina egiten duen arte. Une horretan bertan, aitak edo amak, txandaren arabera, txitaren zirina uzkitik bertatik mokoan jaso eta urrutira eramaten du, hantxe, ongarri moduan uzteko.

Neronek, lehendabiziko aldiz ikusi nuenean, ezin nuen sinistu; aho bete hortz gelditu nintzen, eta, jarraian ulertu nuen zergatik zegoen gure etxe ondoko zola horren garbia. Miretsirik geratu nintzen, eta, pozak txoratzen, aldi berean, ikusita txori haien jakinduria eta txukuntasuna.

Harrigarria, benetan, buztangorri argien garbitasuna eta ekologismoa! Gora buztangorriak!

Xanti Begiristain Madotz (Auritz).

GURE BURUA ZAINDUZ, BESTEAK ZAINZEN DITUGU

COVID-19ak eragindako osasun krisiaren aurrean, norberak bere baliabideak, aukerak, inguruko laguntza, familia... izan ditu, gertaerak modu batean edo bestean barneratzeko. Testuinguru honetan gabezia asko izan ditugu, garrantzitsuenak afektiboak; maite eta behar ditugun pertsonekin egoteko aukera ez izatea, ezin lagunak, familia, besarkatu, laguntza eskaini, alboan egon... Etxean ordu asko igarotzeak kontaktu fisikorik izan gabe ondorio ugari ekarri ditu eta sozializatzeko modu berriak sortu ditugu. Distantzia fisikoa konpentsatzeko gertu sentitzeko moduak bilatu behar genituen eta baita aurkitu ere.

Pantailak lehen ilaran jarri dira, telelanean, hezkuntzan, tramite ugarietan, gure lagun eta familiarekin kontaktuan jartzeko, entretenitzeko... Errealitate honetan ohitura eta errutina berriak sortzen joan gara, baina denak ez dira uste bezain osasuntsuak. Hausnarketa honakoa da: sozializatzeko moduak aldatu egin ditugula eta lehen kale eta taberna giroan egiten genituen kontsumoak etxean integratu ditugula (pintxo-pote birtualak, igandetako bermuta...).

Ez dira gutxi izan, handik eta hemendik, treguarik gabe, bidali dizkiguten eta guk berbidali ditugun "me-meak"; irrikitan nago ateratzeko, munduko garagardo guztia edateko, orain arte edan ezin izan dudana guztia egun batean hartzeko. Beti ere umore punttu horrekin baina premiazko nabardura batekin, beharrezkin, lehentasunarekin eta noski alkohola lehen lerroan eta gure ustez neurritz kanpoko balioa emanez.

Osasun arloko eta arlo sozialetako profesionalak uste dute isolamendu garaian egin ditugun kontsumoak kezkarriak izan daitezkeela nahi gabe eta kontzientziarik gabe geureganatzen badugu etxe barnean eta sozializatzeko taberna eta jatetxeak bezalako foroetako kontsumoa mantentzen badugu.

Honek agerian uzten duena ez da berria, behar bada dimentsio berri bat eman zaio, baina funtsean, alkohol kontsumoaren normalizazioaren pertzepzioa dago. Eta honek kezkatzen gaitu, noski. Zergatik? Alkohola da gizartean, arazo gehien sortzen duen droga. Azken datuen arabera, Nafarroan mendekotasun handiena sortzen duen sustantzia da.

Honengatik guztiagatik komenigarria litzateke alkoholarekin daukagun harremanaren inguruko hausnarketa egitea eta pasatu duguna pasatuta, argi izatea garrantzitsuena ez dela pote bat hartzeko aukera ez izana, garrantzitsuena, maite ditugun pertsonekin egon ezin izatea da. Ideia hauen inguruan hausnarketa egin nahi izan dugu, kanpaina batekin. Aurtengo udako kanpainaren formatua, bideo bat izan da eta bertan aldarrikatzen dena "gure burua zainduz, besteak zaintzen ditugu", leloa gurea egin eta zabaldu inguruko artean.

HERRIARTEKOA, NAFARROAN PILOTAREN GAINBEHERA

Azken Nafarroako herriarteakoaren finala jokatu da betiko taldeen artean. Talde hauek finalera azken hamai-ka urteetan iristen diren zortzigarren aldia. Baina egia esan, talde hauek ez dute jokatzeko beren herriak ordezkatzuz, baizik eta nor bere klubak ordezkatzuz, eta aipaturiko klubak pilotariak jokatzeko dute ezer ikustekorik ez duten herriak ordezkatzuz.

Egoera hau zeren ondorio da?

Gaurko araudi espezifikoak ez da bidezkoa. Oraintxe bertan, pilotari batek bere klubaren taldearekin jokatu dezake nahiz eta herrikoa ez izan. Guk pentsatzen dugu pilotariak bere herriarekin jolastu behar dutela. Horretarako da zure herria, jaio zaren herria, pilotariak bere lagunak dituen tokian, familia eta normalean pilotaria pilotan jolasten hasi zen tokian.

Zer ondorio ditu honek?

Araudi-mota honek egiten duena da, klub txikiak pilotari onenak, beste klub 'konpetitiboago' batzuetara joatea, edo eramatea fitxaketen bitartez, etxeko klubak lana eta pilotari bezala hazteko ahalegina eskaini ondoren. Gure ustez honek ekartzen duena da klub txikiak, txikitatik pilotariaren errendimenduan eta bere ongizatean lanean aritu direnak, lehiakortasunean ezin haztea eta bere pilotariei ezin maila ona eskaini.

Uste dugu federazioak pilotaren oinarriaren sustapenaren alde agertu behar dela, benetan bere herrietako jendearekin eta umeengatik, gurea bezalako klubak lagunduz. Gure iritziz, pilota bultzatzea nahi badugu, erraztasunak eman behar dira eremu eta toki guztietan, eta bereziki zentralizazioagatik kaltetutako zonetara, klubetara, herrietara eta haran txikietara, laguntzak bideratu. Nafarroako federazioak bermatu beharko luke pilotari guztiek aukera berdina izatea kontuan hartu gabe zein lekuan jaio den. Horretarako, Nafarroako eskualde guztietara laguntza ekonomiko eta teknikoak iritsi beharko liriateke.

Azkenik, aipatu nahi dugu, berriki elkarlan hitzarmen bat sinatu dugula Goizuetako Umore Ona eta Leitzako Aurrera pilota eskolekin, gure eskualdean pilota bultzatzen jarraitu eta entrenamendu eta txapelketen bidez gure pilotariei aukera hobekak eskaintze aldera. Eta Araitz Beteluko Araxes pilota eskolari, gure babes osoa pasatzen ari den krisi egoera honetatik ateratzeko.

Larraun Pilota Elkartea

izan bidea ibiltarien sarea | **Urriak 3 · Euskal Herriko mendi tontorren igoera**

Eguardiko 12-etan, Euskal Herriko tontor esanguratsuenatan egongo gara, aukeratu zurea:

-Balerdi-Tturregi-Urkieta-Akier-Beloki-Malkorraundi
-Guratz-Mergelu-Sollazbizkargaña-Txameni-Urakorri.

izan bidea ibiltarien sarea | **Euskal Herriko mendi tontorren igoera · Urriak 3**
_etxerako
_elkarbizitzarako
_bakerako

...elkarbizitzarako_bakerako

7

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

- Elkarrizketatua: Susana Cárcamo.
- Elkarrizketatzailea: Mikel Irurtia.

Okil gibelnabarra: pagadi zaharraren maitalea

Okil gibelnabarra izeneko hegaztia (*Dendrocopos leucotos lilfordi*) milaka urtez bizi izan da Pirinioetako pagadietan, baina ornitologoek ez dute orain gutxi arte identifikatu gure oihanetan: Leitza-Areson, Uitzin, Etxarrin, Aldatzen, Berueten... Oso dentsitate baxuetan beti ere, espeziearen Eurasiako distribuzioaren mendebaldeko mugan baikaude.

Pirinioetako hegoaldean ere, Bertizko pagadian hasi eta Gamueta-ko oihaneraino (Huesca), ehun bat bikote baino ez dira bizi. Ekialde-rago, alerik ez, Ordesan bertan duela berrogei bat urte desagertu baitzen. Hain bakana izanik, "desagertzeko zorian" sailkaturik dago Nafarroan, Aragoian eta Espainiar Estatuan. Izan ere, ez dago espezie mokofinagorik: oihan aberatsak eta urtetan onduak behar ditu bizi ahal izateko eta, nolabait esateko, kalitate-marka jartzen dio bere habitatari. Susana Cárcamo biologoak hamar urte baino gehiago eman ditu okil mota hau ikertzen, eta berarengana jo dugu animalia harrigarri eta misteriotsu honen bila. (1)

"Hegaztiaren kontserbazioa eta egurraren ustiapena bateragarri egitea da kontua"

Gaur egun okil gibelnabarrari buruzko espezialistarik adituenara zara Espainian, baina karrera bukatu berritan ez zenuen hegazti honen aditzerik ere...

Bai, hala da. Nafarroara iritsi bezain laster, ikasketak bukatu eta geroxeago, okil gibelnabarraren inguruan lan egiteko aukera sortu zitzaidan, eta esperientziarik ez nuenez, egun asko eman behar izan nituen mendian bertan ikasten. Aldi berean, basoaren kudeaketan lan egiten duen enpresa batean sartu nintzen. Horrela, bi alderdietan sakontzeko zortea izan nuen: batetik, espeziearen ezagutzan, eta bestetik, Nafarroan basoak kudeatzeko erabiltzen diren modu ugarritan. Harritzen ninduen ikusteak zeinen erlazio estuan zeuden bi mundu horiek, hau da, basoen kudeaketa eta animalia-espezieen banaketa; zoritxarrez, ez zen erlazio hori kontuan hartzen. Garai hartan, "kontserbazioaren biologia" izenekoa bere lehenengo pausoak ematen ari zen: mundu berri bat zen niretzat, oraindik ere ikasgai asko proposatzen dizkidana.

Nafarroan zazpi okil-espezie ditugu, baina gibelnabarra da denetan urriena. Zer dela eta?

Okil gibelnabarra, ongi kontserbaturiko oihanetako espezialista da. Horrek esan nahi du baso handiak behar dituela eta arboladi horietan baldintza natural batzuk gertatu behar direla, hala nola zuhaitzen gaixotzea, zahartzea, zulatzea, usteltzea, hiltzea, erortzea (batzuetan erortza handiak, 2017ko abenduan



Okil gibelnabarra, Santagraz aldeko pagadian (Uitzi), 2017ko maiatzean.
Arg.: Alfonso Senosiain.

(1) "El pico dorsiblanco: una reliquia de la era glacial"; egileak: Susana Cárcamo, Gorka Gorospe, David Campión, Alfonso Senosiain eta Oscar Schwendtner; Quercus, 407. Zenb., 2020, 12-23.

elurak eragindakoak bezalakoak), naturalki biziberritzen diren argiuneak basoan, etab. Dinamika naturaleko oihan hauetan aurkitzen du elikatze eta ugaltze behar duen ingurunea. Zoritxarrez, horrelako oihan gutxi ditugu.

Gurean, ordea, okil gibelnarra ugaritzen hasi dela ematen du, aspaldi galdutako bizilekuak berriro kolonizatzen ari dela. Nola azal daiteke gertaera hau?

Begiratu diezaiozun gaur egun etxe ondoan daukagun edozein basori: iraganeko gestio baten ondorio da. Imajinatu behar dugu zein erabilera izan dituen, horiek moldatu baitute gaur egun basoak daukan itxura. Hori kontuan hartuta, historia birpasa daiteke: mende askotan zehar, 1936ko gerra zibilera arte, ikazkintza industria garrantzitsu bat izan zen, eta jarduera hura guztiz nabari da oraindik gaur egungo oihanen paisaian: ez zen lurrian zehar bakar bat ere uzten; okerrak edo gaixorik zeudenak kentzen ziren, beti ere denetan tantaienak irauarazten saiatuz, edo, aldiz, ikatzetarako pago motzak sortuz. Baina, pixkanaka, baztertu egin ditugu erabilera horietako batzuk, eta gero eta egur hil gehiago dago zoruan, adar hautsitako zuhaitz gehiago, zulo gehiago eta arbola eri gehiago. Basoberritzean bertan ere, arbolarik eskasena ez dira lehen bezala segituan erretiratzeko. Beraz, aldaketa horiek guztiek aukera gehiago sortu dituzte faunarentzat, eta oihanetan gertatzen diren fenomeno naturalek, tantaz tanta bezala, berriro ere hazteko aukera eskaini diote biodibertsitateari.

Hala ere, atentzioa ematen du okil gibelnarra Aralaroko oihan handira zabaldu ez izanak...

Nafarroako Gobernuak Aralar az-



Egur hilak bizi handia ematen dio basoari. Mendiurkillo (Uitz), Etxarriko bertan. Arg.: Mikel Irurtia.

tertzeko lana eman zigun 2016an, baina ez genuen okil gibelnarrik aurkitu. Bertan bizi zedin egokiak ziruditen zuhaitzi batzuk identifikatu genituen, baina batez ere egur hilak eza aurkitu genuen nonahi. Bestalde, oraindik ez dugu behar bezala eza gutzen okilak zer ibilbide erabiltzen duen baso batetik bestera mugitzeko, ezta baso horietatik Aralarrekora mugitzeko erabiliko lituzkeen ibilbideak ere, han inoiz bizileku egokirik topatuko balu.

Ikerlariok behin eta berriz esaten duzue oihan heldua oinarritzkoa dela okil gibelnarra bizi ahal dadin, eta zenbait baldintza bete behar direla habia egin dezan. Basoaren egituraren arabera desberdintasunak gerta badaitezke ere, honela laburbil daitezke baldintzok: hektarea bakoitzeko, gutxienez 50mko zabalera duten 30 zuhaitz edo gehiago izatea, eta hainbat metro kubiko egur hil egotea zutikako zuhaitzetan.

Oihan bat zaharra dela esateko, bertako zuhaitz gehienak, edo baso-sail eder batzuk, zaharrak izatea behar dugu, edo ez gazteak behintzat. Hori ikusteko, zuhaitzen diametroari



Susana Cárcamo biologoa (Madril, 1969), Larraungo baso batean ikertzen. Arg.: Oscar Schwendtner.

“Horrelako baso batek gu ere babesten gaitu, gure biodibertsitateari eusten diolako”

“Bai okil gibelnabarrak, bai bera bizi den baso zaharrek, izaki bizidunak lotzen dituzten sare handiez hitz egiten digute”

begiratu behar diogu: pagoetan, 60 zm baino handiagoko diametroak, hau da, 120 urtetik gorako arbolak, zahartzen hasiak direla esan daiteke, hirurehun edo laurehun urtez bizi daitezkeen arren. Ez da nolana hiko lorpena, mozteko txanda 100 urtekoa izan ohi dela kontuan hartuz gero. Baina esan daiteke orduan hasten direla oihan zaharraren dinamika naturalak gertatzen: gaixotasuna, atalkako edo pixkanakako heriotza, usteltzea eta birsorkuntza, hain zuzen ere gaur egun hain gutxitan gertatzen diren dinamikak, baina berrero ere ziklo osoa has dadin ahalbidetzen dutenak.

Niretzat zera izan da agian ikasketarik harrigarriena: basoan hil-hurren edo hilda dagoen arbola bat, bizirik dagoen beste bat bezain onuragarria dela ekosistemarentzat. Zuzen ote nabil?

Zalantzarik gabe. Gure kasuan, okil gibelnabarra bizi den beste oihan batzuetakoarekin konparatuz gero, egur hilaren kantitatea minimoa da, baina zuhaitz bizien adinarekin eta basoaren egiturearekin batera, desegiten hasitako egur hori ekosistemaren aberastasunaz mintzo zaigu. Ezaugarri horiek bidea ematen dute egur hilari estu loturiko liken, goroldio, onddo eta ornogabeen hainbat

komunitate heldu ezar daitezen. Horiek guztiak oso eskasak dira gure basoetan eta, batzuetan, arriskuan daude.

Azpiegiturei dagokienez: zenbait kasutan, oihan heldua babestea erabaki da, egin izan balira ingurumenean inpaktu handia sortuko zuketena obra batzuk txarretsiz. Herri batentzat, errentagarria edo nolabait onuragarria izan daiteke oihan heldu baten kudeaketa?

Jakina. Ongi gorde den basoa, inguruko herritarrek harro begirtzen dutena, altxor bat da. Gainera, espezie mehatxatuentzako gordelekua ez ezik, beste “zerbitzu” asko ere eskaintzen ditu: naturaren kontserbazioarekin sentsibilizatu-tako turismoa —naturatik ikasteko gogoz datorrena— erakartzen du. Esaterako, Basaburuko eta Larraungo oihanak, Europako parke nazionaletakoen mailan daude, eta hauek turista asko joaten dira, okil beltza ikustera, adibidez, baina okil gibelnabarraren bila batez ere, ongi kontserbaturiko oihan europarretan baino ikusterik ez dagoen harribitxia denez. Bestalde, oihan zahar hauek, ustiaketa tradizionala eta naturaren kontserbazioa bateragarriak direlako adibide izateaz gainera, garai bateko usadioen lekukotasuna dira, balio hezitzaile handia duen labo-

Oihan heldua kaotikoa da itxuran, baina, era berean, dagoen egiturarik orekatuenetakoa. Bertizko Jaurerria. Arg.: Alfonso Senosiain.



rategi bat, eta beste gauza asko... Garrantzitsua izanen litzateke material hauek gure ikastetxeetara iristea, hartara haurrek gure basoen aberastasuna balioesten erakutsiko liguketelako.

Okil gibelnabarra "adierazle ekologikoa" dela esan ohi da, bera bizi den oihana kalitate handiko lekua dela adierazten duelako. "Guarda-sol-espezie" ere deitzen zaio, hala nola hartzari edo katamotzari, espezie horiek bizi diren lekua babestuz gero beste asko bizi daitezkeelako bertan. Zer deritzozu horri? Zein beste espezie babes ditzake okil gibelnabarrak?

Ezaugarri hauetako baso batean espezie bakoitzak bere neurriko gordelekuren bat aurkitzen du; lurlean useltzeaz dauden adar horiek eta zutik edo lurlean erorita hiltzen diren arbolek bizitzeko aukera ematen diete Europako basoetan hain urriak diren onddo, liken, goroldio eta ornogabe txikiei, eta hauek, era berean, beste hainbat espezieren elikagai izaten dira, ondorioz oso erlazio trofiko aberatsak sortzen direlarik. Beraz, horrelako baso batek gu ere babesten gaitu, gure biodibertsitateari eusten diolako: gure ondare biologikoari.

Orduan, zer ondoriotara garamatza oki gibelnabarraren presentziak?

Bera bizi den oihanaren gestioari dagokionez, hegaztiaren kontserbazioa eta egurraren ustiapena bateragarri egitea da kontua. Horretarako, bi



Okil gibelnabar bat monitorizatzen, bizkarrean emisore bat jarritz. Espeziea babestekotan, ezinbestekoa da lurraldea nola erabiltzen duen ezagutzea. Arg.: Gonzalo Santomá.

gauza jakin behar ditugu: hegaztiak nola erabiltzen duen lurraldea eta zein diren basogintzaren beharrezkoak. Esperientziak erakutsi digu bi horiek guztiz bateragarriak direla, baina, jakina, kontu eta zehaztasun handiak erabiltzea eskatzen digutela, merezi duten kontu eta zehaztasunak, inondik ere.

Bai okil gibelnabarrak, bai bera bizi den baso zaharrak, izaki bizidunak lotzen dituzten sare handiez hitz egiten digute, baliabideak erabiltzen dituzten moduez eta egokitzeko darabiltzaten estrategia harrigarriez. Garrantzitsua da jakitea aberastasun horren gordetzailen diren izaki bizidun batzuk babesten ari garela, eta funtzio gordetzailen hori dutela, gure begientzat, edertasunik handiena.



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555



emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Erresilientzia

Erresilientzia psikologia arloko nire hitz gustukoena da. Bere esanahia pertsonak bizitzako momentu zailak gainditzeko dugun gaitasuna da. Egoera oso nekeza izan arren, beti egin dezakegu aurrera ikasketa malleta batekin.

Tentagarria ezta? Baina argitu dezagun lehenengo zer den pertsona erresilientea izatea. Dagoeneko konturatu gara bizitza momentu gozo eta gaziez osatuta dagoela. Bien arteko oreka ordea ez dago momentu gazi eta gozoak zenbatzean, nahiz eta kontutan izatekoa ere baden. Gakoa momentu horiei aurre egiteko jarreran dago. Zeren eta, ez naiz esateaz nekatuko, bizitzak momentu itsusiak ere baditu.

Kontuan hartzeko alderdi garrantzitsuak: momentu guztiak, txarrak barne, behin behinekoak izango dira. Baina behin behineko egoera hauek oso luze suertatzen ahal zaizkigu uzten diguten hondar desatseginez bakarrik elikatzen bagara.

Eta, urteko galdera: esperientzia negatibo hauek zerbait positiboa ekarri dezakete? BAI, NOSKI. Esperientzia orok, harekin dakar ikaskuntzaren bat, bizipenen artean atzeman eta erauzi beharoko dugu. Laranja zukua egitea bezala da azken batean, laranja guztietatik atera dezakegu zukua, batzuetan mikatza eta bestetan gozoa, baina beti atera dezakegu zukua.



Honela, zorionera atea irekita daukagu. Ez gaitzen engainatu, denok nahi dugu zoriontsu izan, baina oroitu zorion horrek emozio guztiak bildu behar dituela, bakoitza bere neurrian eta tokatzen denean, hauek sentitu eta askatuz, momentu bakoitzaz disfrutatuz.

Beraz... jarri gaitzen lanean! Nola izan gaitzke erresilienteak:

- Auto-behaketa, auto-ezagutza eta denbora eskaini. Behatu zure gaitasun positiboak, ezagutu non dauden zure mugak eta egokitzapen positibo bat baimentzen duten gaitasunak indartu. Gustatzen zaizkizun gauzeta denbora eskaintzea positiboa izango da norbere zaintzarako.
- Zaindu nola hitz egiten diozun zure buruari, zer esaten diozun. Beti errespetuz eta goxotasunez. Zure gaitasunetan konfiantza izan. Oreak mantendu exijentzia edo perfekzionismoan ez erori, erritmoak errespetatu presioaren joerari jaramonik egin gabe.
- Umorea eta irribarrea zailtasunen aurrean. Atseginak diren emozioak, egoera lasaiak eta dibertigarriak sustatu. Esperantza, ilusioak eta motibazioa garrantzitsuak dira.
- Modu erabilgarrian pentsatu. Ikaskuntza bilatu, ikuspuntu positiboa zoritxarren aurrean. Ez tematu arazoarekin eta kexarekin, eta aldiz, eman garrantzia erantzunei eta konponbideei. Buruari buelta asko eman arren, iragana ez da aldatuko.
- Zure ardura den hori onartu. Hartu zurea dena, zure eskuetan dagoena eta egin dezakezuna. Gainerakoa kanpora.
- Osasun eta oreka emozionala. Bizitzan dena da emozioa eta hauek zure erabakiak, motibazioak eta ilusioak gidatuko dituzte. Ikasi identifikatzen, erregulatzen, jasaten, onartzen eta arrazionalizatzen.
- Emozioak partekatu. Espresioa sustatu. Gertatzen zaiguna partekatzeko karga arintzen du.
- Kontaktu soziala. Gogamenari malgutasuna ematen dio eta tolerantetara izaten laguntzen digu inguratzen gaituen egoerarekin. Beste ikuspuntu bat ematen du.
- Kontrolari mugak jarri. Ziurgabetasuna jasan.
- Zaindu, zure osasun fisikoa hobetu. Kortisol (garunak estresa sentitzen duenean jariatzen duen hormona) gehiegi izateak erresilientzia okertzen du, gehiegizko alerta sententzia eragiten duelako, pentsamendu asertiboak eta proaktibitatea jaitziaziz eta gure sistema immunea okertuz.
- Errealista izan. Ez erori "dena niri gertatzen zait" esaldiaren tentaldian. Zuri gauzak gertatzen zaizkigu, gainerakooi bezala. Horien artean baita gauza onak ere, bilatu zure inguruan daudenak.
- Egoera onartzea ez da etsipena, askatzea baizik.
- Zure atentzioa nora doan behatu.



Ikuspuntu orokor bat mantentzen saiatu eta zentratu objektiboa den horretan, ez bakarrik zure interpretazioak (antsietateak, urduritasunak eta haserreak erresilientziaren interpretazioa zailtzen dute).

BIZI! Beldurrak ez zaitzan gelditu.

"Pertsona bati dena kendu dakioko baldintza zehatzetan hartzen duen jarrera izan ezik"
Victor Frankl.



▶ JOSE LUIS ZUMETA OMENDUKO DU AURTEN AZKEN MUGA EKIMENAK

Irailen zehar Azken Muga egitasmoaren baitan antolatutako egitarau zabala izanen dugu aurten ere Zaraten. Osasun egoera berria dela eta, aurten ez dira publikoarentzako bazkaririk antolatuko. Horrez gain eguraldi txarragatik bestelako tokietan egin behar izanez gero, edukiera eta beharrezko neurriak aintzat hartuko da. Irailaren 5ean emanen zaio hasiera eta aurten Jose Luis Zumeta omenduko dute Zaratetxean ikusgai izanen den erakusketarekin (egitaraua 32. orr.).



▶ LEHEN SEKTOREA BULTZATZEKO LEHEN EMAITZAK IRAILAREN 15EAN ARAITZEN

Irailaren 15ean arratsaldeko 18:00tan Araizko udaltxean Araizko ekoizpenaren eta lur bankuaren ikerketaren ondorioen aurkezpena eskainiko dute Nafarroako Unibertsitate Publikotik etorriko diren Ramo Barrena eta Lorena Donazarrek. Eta bestetik, 2019an Mendialdeko ekoizleei egindako galdeketa-aren emaitzak eta eskualdean aurrera eramaten ari diren ekimenen berri emanen du Cedernako teknikaria den Amaiur Unzuetak.

GAZTEEI ZUZENDUTAKO UMORE SAIOAK

Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eskualdeko udalekin eta hainbat elkarte eta zerbitzurekin batera gazteei zuzendutako bi saio eskaini zituen. "Jolasak, antzerkia eta zirkua Pantxikarekin" ikuskizunak izugarritzko arrakasta izan zuen bi ibarretan. Euskararen erabilera bultzatzeaz gainera, emozioei izena jartzearen garrantziaz, norbere gorputza onartzeaz eta aniztasunaz aritu ziren.





HITZALDI BATEKIN EMANEN DIOTE HASIERA LARRAUNEN "URA ETA LURRA" PROIEKTUARI

Datorren irailaren 11n, arratsaldeko 19:00tan Larraungo Udalak "Ura eta lurra" proiektua aurkeztuko du udaletxean. Horrekin batera hasiera emanen dio abendura bitarte antolatutako egitarauari. Egun horretan bertan, Baztango alkatea den Joseba Otondok eta Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterolak eskainitako mahai ingurua izanen dugu tokiko garapenaren inguruan. (Begiratu datozen ekitaldiak: 31.orr).



GOGOR: ELIKAGAI ETA OINARRIZKO PRODUKTUEN BANKUA

Maiatzean Sakana, Irurtzun eta Larraungo zenbait gaztek sortutako Gogor Langileon Defentsa Antolatutako Elikagai eta Oinarrizko Produktuen Bankua jarri du martxan. Egun, aipatutako eskualdeetako 60 pertsonak jasotzen dute bankuaren laguntza eta beste hainbeste dira itxaron zerrendan daude. Lekunberriren kasuan, larunbatero txandakatu, Aliprox eta Coviran supermerkatuen aurrean kokatzen dira (10:00-14:00). Eta orain, Araitz eta Betelun ere bilketa egiten hasiko dira, larunbat goizetan Arriben eta Betelun, txandaka. Lehenengo bilketa irailaren 5ean izango da Betelun, udaletxe aurrean eta bigarrena berriz irailaren 12an Arribeko elkartean. Ahal dena eman, behar dena hartu!

20 LAGUNEK PARTE HARTU DUTE AKELAR IBILBIDEAREN AUZOLANEAN

Ondare Kultur Taldeak deituta auzolana egin zen joan den abuztuan Allin. Hogei lagunek parte hartu zuten Alliko trikuharririk hasten den eta herriaren inguruan osatutako Akelar ibilbidea berreskuratzeko lanetan. Datozen hilabeteetan Lekunberriko teileria zaharrraren ondoan dagoen galtzina labea berreskuratzea da taldearen asmoa.



Amak, aitak, gurasoak eta familiak

Aimarrek bederatzi urte ditu eta amarekin eta amonarekin bizi da. Duela bi urte aita auto istripu batean hil zen. Herriko hilerrian lurperatu zuten eta hasieran amorrua sentitzen bazuen ere, orain bisitan joateak lasaitasunez betetzen du.

"Nire familia txikia da. Aitak ez zuen anai-arrebarik; amak, berriz, bi anaia ditu. Eguberrietan eta urtebetetzeetan ikusten ditut denak, gertu xamar bizi garelako: lau osaba-izebak, aitona-amonak eta Ikerne, Araia eta Luka lehengusu-lehengusinak.

Pareko bizilagunak ezagutu aurretik familia guztiak nirea bezalakoak zirela uste nuen. Beno, aitatzko batekin.

Erika, Silvia eta Sua katua elkarrekin bizi dira. Amak dio neska-lagunak direla, "aitatzko eta amatxo bezala". Baina Erika eta Silviak ez dute amatxo izan nahi. Ilobekin nahikoa dutela dio Erikak. Nahiz eta urrun bizi.

Pau eta Noa Valentzian bizi dira, baina maiz bueltatzen dira Euskal Herrira. Izeba Erika bisitatzera etortzen direnean haiekin jolasten dut beheko parkean. Euren aita Erikaren anaia da, baina ez dute zerikusirik. "Pijo" hutsa da. Beno, hori dio aitona Euxebiok: "aita ingeniaria eta ama medikua, nola ez dute, bada, bueltaka eta oportretan ibiltzeko dirua soberan izanen!"

Amaru urrunago bizi da, ordea. Perun jaio zen, ama bertakoa duela. Amazonasekoa. Erikak askotan erakutsi dizkit argazkiak eta uffa, ika-

ragarri polita da! Irati oiha-narekin konparatu izan



diot, baina ezetz dio berak: handiagoa dela! Eta milaka intsektu gehiago (eta handiagoak) daudela. Oraindik ez dut Amaru ezagutzen, baina etorri bezain pronto, herria goitik behera erakutsiko diot!

Erika eta Silvia pareko etxera mugitu zirenetik oso ongi moldatu gara haiekin. Euren urtebetetze festetara gonbidatu gaituzte, pentsa! Han ezagutu nuen Julene, Mikel eta Jorgeren alaba. Txinatarra da, adoptatua. Oraindik ez du hitzik egiten, baina euskaraz egiten diote (nik ez, ez baitakit halako ume txikiarekin zertaz hitz egin). Etxean txineraz egiten ote dioten galdetzen diot neure buruari. Edo txineraz jakinen duen. Auskalo.

Festan Ekaitz ere ezagutu nuen. Ekaitz amarekin bizi da, eta batzuetan aitarekin. Bananduak daudela

esan zidan. Nik badakit zer den hori, klasekide baten gurasoak ere halaxe bizi dira; bakoitza bere etxean.

Eta badakizue zer? Telebistan gizon garrantzitsu batek, trajea eta gorbata zeramatzan batek, familia izateko ama eta aita behar direla bota zuen aurrekoan. Hara zer txorakeria! Hori entzun nuenean gogoak piztu zitzaizkidan gizon bizardun horrekin hitz egiteko. Eta Silvia eta Erikari buruz mintzatzeko. Julene eta bere aitatzkoak aurkeztuko nizkioke. Pau eta Noa. Amaru. Ekaitz, amatxo eta amonari buruz ere hitz egingen nioke. Nik ere berak pentsatzen duena uste nuela esateko irrikaz gelditu nintzen. Baina orain banekiela guztiok ginela familia. Modu batera edo bestera elkar maite genuela eta zoriontsu ginela horrela".

Aldarri nudista

Kaixo irakurle:

Aurreikusi dezaket oraindik gai ia bakarra egongo dela eguneko berrien erdigunean. Aurreko artikuluan idatzi nuen bezala, uste dut coronavirusaren inguruan hartu diren erabakiek (distantzia soziala, mikrobioenganako beldurra...) ondorioak utziko dituela pertsonen arteko harremanetan, baita naturarekin eta inguruarekin erlazionatzeko moduan ere. Orain kutsatzeari dugun beldurra, gure inkontzientean gera daiteke eta beldur izan besteekiko eta gauzekiko kontaktuei. Besteak beste...

Udaberri bukaeran ohartu nintzen baditugula ideiak gure barnean "izoztuta" gelditu direnak, auskalo gizakiaren historiako zein momentutan (Erdi Aroa, Zientziaren Aroa, etab.) eta nire ustez kalte egiten ditugutenak, ez direnak jadanik beharrezkoak, baina sinesmen zahar batek gure barnean iltzatuta eta justifikatuta uzten dituenak. Orain "birusa ez zabaltzeko" kontaktu fisikoa ekidin behar dugula sinistea, gerora, kontaktu fisikoa ez dela ego-kia utzi dezake airean.

Horrelako zerbait pasatu da nire ustez biluztasunarekin. Diskurtoari dagokionez, gero eta onartuago dagoela dirudien arren, jendaurrean biluzik normaltasunez egotea, uste dut orokorrean lotsa handia ematen digula. Besteak ikusteko orduan ere, lotsa, jakin-mina eta epaitzeko joera ere hor dabilta. Elkar epaiketa hori hor barruan dugunez, besteak gu epaitzeko beldurra ere... Gorputz perfektuen helburuan arrunta den garai honetan gainera... Nahasmen



handia dugu gaiaren inguruan.

Nire buruan bizi izan ditut egoera ezberdin hauek. Umetan eta nerabetan sekulako lotsa ematen zidan jendaurrean biluzik egoteak. Familiar ez genuen ohiturarik, lagun artean ere ez. Norbait biluzik ikustean begiratzeko gogoia, adarra jotzekoa, kritikatzekoa... Ondoren, pixkana-pixkana nire burua onartzen joan nintzen eta giro seguruetan (lagunarte jatorretan, hondartza nudistetan...) biluztasuna praktikatzeko hasi nintzen. Pertsonalki sekulako onura egin zidan, nire burua onartzeko, besteen burua hobeto onartzeko, gorputz idealen irudia duen mundu faltsu hori bertan behera erortzen joateko eta hor erlaxatzeko.

Biluztasunaren aurrean dagoen beldur handietako bat sexualitatearen ingurukoa dela uste dut. Badago

horrelako "mito" bat diona (batez ere gizonezkoen artean) norbait biluzik ikusten badugu, sexurako gogoia jarriko zaigula, ezingo diogula gure buruari eutsi... Nire esperientziaren arabera, ez da horrelakorik pasatzen. Aldiz, besteak errespetatzeko, zaintzeko gogoia handitzen zait. Jende helduak, gazteak, gorputz guztien edertasunak errespetatzeko, pertsonen gizatasuna hobeto ulertzeko eta onartzeko.

Hausnarketa hauek egiteko "txispa", Lekunberri eta Mugiro artean moldatu berri duten ur jauzia bisitatzeari joan ginenean sortu zitzaizkidan. Bertan nudismoa egitea gaizki ikusia egongo zela ohartu ginenean. Ez hori bakarrik, ez ulertua eta ez errespetatua izateko aukera asko zeudela ohartu ginenean (nerabeak oihuka, jende heldua asaldatuta...)

Hau idazten ari naizen bitartean lagun batekin hausnartu duguna ere jarri nahi nuke: biluztasunaren inguruko arazo handi bat gizonok nola begiratzen dugun dela. Errespetuz begiratzeko bagenu, obsesio gabe, beste ezer espero gabe... errazagoa eta erosoagoa izango zen denontzat.

Biluztasuna gauza osasuntsua dela aldarrikatuz, gure inguruan nudismoa egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dut. Nahi ez duenak ez dezala egin noski, errespetatzen dut, baina nahi duenak egiteko aukera izan dezala. Ez da agian egun batek besterako prozesua izango, baina helburua hor dago. Inguruaren osasunerako garrantzitsua dela uste dut. Zer diozu? Hitz egingo dugu topatzen garenean!



Zabal

“Emakumezkooi zaintza ardura gehiago egozten dizkigute”

Rocio Ochoa donostiarrek sei urte daramatza gurean, Lekunberrin. Dagoeneko aski ongi ezagutzen du herria. Hain zuzen ere Lekunberrin oinarrituta dago bere doktoretza tesia “Kontziliazio familiar eta laborala Lekunberrin (Larraun): hurbilketa etnografiko bat”.

18

Antropologoa eta gizarte hezitzailea da Rocio Ochoa eta joan den udaberrian, “Kontziliazio familiar eta laborala Lekunberrin (Larraun): hurbilketa etnografiko bat” izeneko doktoretza tesia aurkeztu zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Ez zuen ordea

espero bere ikerlanak halako oihartzuna izanen zuenik.

Lekunberrin egindako ikerketan dago oinarrituta tesia, bertako hainbat familia elkarrizketatu baitzituen lana osatzeko. Horien laguntzarekin euren familietan lana banatzeko mo-

dua aztertu zuen, etxetik kanpoko lanak, zaintza lanak nahiz aisialdia, bikote diren gizon eta emakume horien artean nola banatzen dituzten.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko bidean pauso garrantzitsuak ematen ari diren arren, egunerokoan asko dira guk geuk onartutat ematen ditugun rol eta ardura desorekatuak. Rocio amada eta aski ongi daki zeinen zaila den ikasketak, lana, eta etxeko zaintzaren arteko kontziliazioa. Emakumea eta enpleguaren arteko harremanak betidanik piztu izan du bere interesa. 70eko hamarkadan jaioa izanik, gazte-gaztetatik ohartzan hasi zen emakumeei lanpostu mota batzuk esleitzen zitzaizkiela eta gizonezkoei beste batzuk eta, etxeko lanak beti emakumeari zegozkiola. Rocio: “*Nik feministatzat dut neure burua eta oso kontziente naiz, sistema patriarkala dela eta, historikoki guri tokatu zaigula kontziliazioaren alderik itsusiena. Hala ere, ez du zerikusirik gizarte klase altu bateko emakumeek bizi izan dutena eta bizitzen dutena, klase baxukoek bizitzen dutenarekin. Klase altukoek dirua dutelako kontziliazioaren zati handi baten ardura euren gain ez hartzeko*”.

Emakumeak lan munduan guztiz integraturik gaudela jakintzat ematen den honetan, etxeko lanak ere berdintasunez partekatuak daudela ematen da aditzera maiz eta Rociok bere ikerketarekin hori gezurtatzeko aukera izan du. Horretarako, eta jakinik beste hainbat familia eredu geroz





eta ugariagoak direla, bikote heterosexualez eta hamabi urtetik beherako seme-alabez osatutako familiak izan ditu aztergai. Rocio: *"Ikusi nuen gai honetan ez zegoela apenas alderik hirien eta herri txikien artean eta beraz, Lekunberrin oinarritzea erabaki nuen"*. Emakumezkoek nahiz gizonezkoek, biek, etxetik kanpo lan egiten duten familiak izan dira.

Familiei egindako elkarrizketen bitartez hartu duzu ikerketarako beharrezkoak zenituen laginak...

Bai, 60 elkarrizketa egin ditut. Familia unitate horietako emakumezko nahiz gizonezkoak bakarka elkarrizketatu ditut ikusteko zer dioten batak eta zer besteak etxean duten antolatze moduari, kanpoko lanei nahiz aisialdiari dagokionean. Horregatik Lekunberrin bertan oinarritzeak erraztu egin dit lana. Hala ere, ez dut elkarrizketatu bereziki gertukoak ditudan familiak, politikoki zuzenak diren erantzunak saihestearren. Elkarrizketa horiez gain eztabaida taldeak sortu ditut. Talde horietan gizarteak zuek espero dituen erantzunak jaso ohi dira gehiago eta bakarkako elkarrizketetan aldiz, errealitatea agerian gelditzen da.

Zer jaso duzu lagin horietan?

Gaur egungo gizarte eremuan, emakumezkoak behartuta daude nolabait etxetik kanpo lan egitera familiaren ekonomiarri eusteko. Oraingo eremuan biek etxetik kanpo lan egitea bien ardurara gisa onartzen da. Bai-

Idealki uste dugu biok etxetik kanpo lan egiteagatik etxekoaz arduratzeko ere bion artean moldatzen garela.



na etxeko lanez ari garenean sortzen da arazoa, etxeko lanak banatzerako orduan. Idealki uste dugu biok etxetik kanpo lan egiteagatik etxekoaz arduratzeko ere bion artean moldatzen garela. Hori izan da beraiengandik jasotako lehen erantzuna. Baina banaketa hori zehazki nola egiten duten aztertzen hasten zarenean...

Alde batetik kanpoko lanean sortzen diren ezberdintasunak aztertu dituzu...

Bai, kasuen %90etan, lanaldi murrizketak, eszedentziak edo amatasun eta aitatasun baimenak hartzen dituztenak emakumezkoak dira, baita kontziliazio arazoengatik lana aldatu edo uzten dutenak ere. Orokorrean emakumezkoek ikasketak prestakuntza handiagoa duten arren, lanpostu txarragoak eta soldata eskasagoak dituzte. Bestalde, amatasunaren gaineko ideologiak ere izugarriko era-

gina du. Gaur egungo eremuan oso barneratuta dugu ama dela ume txikien zaintzarako egokiena, baina ez da kontuan hartzen lana uzteak epe luzera dituen ondorioak. Munduko Osasun Erakundeak dio oso gomen-dagarria dela edoskitzea gutxienez haurrak bi urte bete arte eta egokia izan daitekeela 7 urte bete arte. Aldiz, amatasun bajak lau hilabetekoak baino ez dira. Era berean, maiz ikusi ohi dugu erditu eta berehala lanean hasten diren emakume horiei egozten zaizkien aurreiritzi negatiboak.

Bigarren atal batean zaintza lanen banaketa legoke...

Bai, zaintza lanak eta horren barruan baita etxeko lanak ere. Eta era berean, hiru norabidetan aztertu ditut horiek. Alde batetik egin behar materialak daude (otorduak prestatzea, erosketak egitea, etxea garbitzea...), horiek besteen eskutan uzten erraze-

Emakumezkoek gehiagotan egiten ditote uko euren denbora libreari.



Nork hartu ohi du kudeaketaren ardura?

Ikerketa honetan aita bat egon da bere bikotea baino gehiago arduratzen dena kudeaketaz, gainerako kasu guztietan pisu hori emakumearen gain erortzen da, nahiz eta euren bikoteak inplikaturik egon etxeko lanetan etab. Argi ikusten da ere, familiaren ekonomiak aukera ematen badu eginbehar material horiek familiarik kanpoko pertsonen esku uzteko joera dagoela. Baina ikerketa hau klase ertain-baxuko familiekin egin dut eta gehienek ez dute horretarako aukerarik.

Eta ardura moralean zein ezberdintasun ikusten dira?

Argi ikusten da gizonezkoek pisu moral txikiagoa dutela. Adibidez ez etxeko lanak egiterako orduan badirudi zer gustatzen zaien egitea eta zer ez aukeratzeko eskubide handiagoa dutela. Edo parkera joatea gustatzen ez bazaio seme-alabak beste leku batera eramaten ditu pisu moral handirik sentitu gabe. Aldiz emakumeoi betidanik esan izan digute haur horren etorkizuna gure esku dagoela eta karga horrek pisu handia izan ohi duela uste dut erabakiak hartzerako orduan. Badira aita batzuk askoz gehiago inplikaturik iratekeenak, baina amatsunaren bueltan tradizio bihurtu diren rola horiek eurei ere eragiten die eta ondorioz beraiei enpleguan inplikazio handiagoa izatea exijitzen zaie.

nak dira. Bestetik ardura morala dago (bilera bat dudan bitartean nor geldi daitekeen haurarekin, gauzez nor altxatuko den umea esnatuz gero), oso zaila dena neurtzen. Eta azkenik kudeaketa dago, hau da, baliteke bikote batean gizonezkoa arduratzea seme-alabak eskolara eramateaz edo erosketak egiteaz, baina nor arduratzen da jakiteaz, zein egun eta orduetan dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, arropa berria erostekoa beharra duten etab. Elkarrizketetan argi gelditu da ez gizonezkoak eta ezta emakumezkoak ere ez direla oso kontziente egunerokoan dituzten ardura horietaz.

IORTIA EL INCA ESTETAL HORTZ ELBINA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

Eta ez da eztabaidarik izaten bikoteen artean ardura horiek banatzeko?

Bai, baina eztabaida horiek oso azaleakoak izaten dira. Agian etxeke eginbehar materialen banaketaz eztabaidatzen da, baina ardura moralari buruz edo kudeaketari buruz apenas, naturalizat jotzen dugulako. Barneratuta ditugun rola dira eta gu gara horiek esleitzeko eskubidea dugula ohartzen ez garen lehenak. Berdina gertatzen da eszedentziak eta baimenak hartzearekin. Ez dugu pentsatzen esaterako, haurra hazi bitarteko zenbait urtetan lana utziz gero, Gizarte Segurantzari kotizatu gabeko urte horiek gure gain hartzen ditugula eta ondorioz erretiro-dun pentsio eskasagoa izanen dugu edota bikotearengandik banatu nahi baduzu ekonomikoki independentea ez izateak sortzen ahal dizkizun arazoetan. Gauza horiek guztiak ez dira eztabaidatzen.

Nondik datorrela uste duzu kontziliazioaren krisi hau?

Familia bizitzaren eta enpleguaren kontziliazio politika hauek orain gutxi sortu izana ez da kasualitatea. Zaintza krisi bat egon da. Gaur egun gure aitona-amonon garaian baino seme-alaba gutxiago izan arren, haurren zaintzari eskaintzen diogun debora askoz ere handiagoa da. Garai batean, gizarte klase ertain-baxuko familietan, umeari jaten eman, jantzi, eskolara eraman eta kitto! Eskolaz kanpoko jarduerarik ez zen, umeak kalean hezten ziren beste umeekin batera, ez zituzten babesten gaur babesten ditugun bezainbeste... Eta bestalde, emakumeak etxetik kanpo lan egiten du. Lehen aldiz, haurrak izaten hasten zirenean emakumeak etxetik kanpo lan egiteari uzten zion eta bizitza osoa ematen zuen haurren eta adinekoren zaintzari lotuta. Orain ez.

Aisialdirako dugun denbora ere ikertu duzu...

Bai, aisialdiko denboraren banaketa ere adierazle bat da. Hor ere ezberdintasun argiak ikusi ditut. Gizonez-

koek esaterako argi dute euren seme-alabekin parkean edo plazan egotea ez dela euren denbora librea. Baina aldiz, zenbait emakumeri denbora librea dela iruditzen zaie, bidenabar lagunekin kafetxo bat hartzen gurtura egoten direlako. Beste batzuk, argi dute hori ez dela euren denbora librea. Kosta egiten zaigu ohartzea nire seme-alabei eskaintzen diegan debora horretaz gozatu arren, uko egiten ari naizela nire denbora librean eginen nituzkeen beste hainbat gauzei. Emakumeok zerbaiti uko egiten badiogu nahi dugulako izan dadila, baina ezin diogu horrenbeste gauzei uko egiten jarraitu, denbora libreari, gizonezkoek bezalako pentsioak izateari, soldata duinari...

Zein izan da tesi honekin ateratako ondorioa?

Uste dut naturalizazio horrekin apurtu behar dugula. Antropologiak zerbait erakutsi badigu da ez dagoela ezer naturala, kultura bakoitzean gauzak modu ezberdinean egiten direla. Haurrak izateko gaitasun biologikoa izateagatik ezin zaizkigu hainbeste ardura egotzi. Zaintzaren ardura denok har dezakegu, zaintzen ikasi egiten da eta gizonezkoei ere badagokie, gizarte osoaren ardura da.

“Emakumeok zerbaiti uko egiten badiogu nahi dugulako izan dadila”





Ekitaldiz betetako uda berezia

Uda honetan ezin izan ditugu gure herrietako festak ospatu eta ohi baino gutxiago mugitu garen arren, eskualdean hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu dira. Larraun eta Lekunberriko Udalak hainbat filmen proiektzioak eskaini zituen, baita txikientzako txotxongiloak eta ipuin musikatuak, helduentzako antzerkia, gazteentzako egun pasa... Ekitaldiak aurten Lekunberri ez ezik Larraungo herrietako plazetan ere izan dira. Araitz eta Betelun berriz, Azkaraten egindako trapezio ikastaroak arrakasta handia zuen. Uda honetan Joana Ziganda eta Iker Uriberen ipuin kontaketaekin nahiz Edorta Amuruak Uztegin eskainitako kontzertu akustikoarekin gozatzeko aukera izan zuten besteak beste. Eta ongi pasatzeaz gainera, gure ingurua zaintzeko ekintza bat ere egin zen Intzako errekan.

Hainbat herritarrek axolagabekeriak errekarara botatako zaborra biltzen ibili ziren. Zaborren beteta errekarara botatako zabor poltsak, belar bolen plastikoak, botilak eta beste hainbat zabor mota biltzen ibili ziren. Ekin-tzan parte hartu zuten zortzi familiek ahalegin hori egin eta gero, errekan egun ederra pasa zuten. Eta Tximuutxe Bilgune Feministak ere bi ekimen antolatu zituen. Abuztuaren 2an, Ane Labaka, Nerea Ibarzabal eta Joana Zigandak "Ez da kasualitatea" bertso-saio musikatu eskaini zuten Uztegiako frontoian. Eta bestalde, abuztuaren 27an, Gaintzan, 20 lagun elkartu ziren emakumeok gure egunerokoan bizi ditugun hainbat egoera partekatze "Kont(r)aesanak" clown emanaldiaren bitartez.

Larraungo erraldoi eta kilikien aurkezpena eginen du Konpartsak irailaren 12an

Datorren irailaren 12an, arratsaldeko 18:30ean, Larraungo Erraldoi eta Kilikien Konpartsak bere pertsonaien aurkezpena eginen du Lekunberri. Malloa, Larraun, Larrain eta Napar dira lau erraldoiak. Horiekin batera sei kiliki izanen ditu konpartsak, baina oraingoz horietatik hiru iritsi dira gurerara, Elutxa, Gaztaundi eta Errementaria.

Lekunberriko frontoiaren atzean dagoen Vegako zelaigunean izanen da ekitaldia. Bertan hainbat dantza eskainiko dituzte erraldoiek. Tuterara, Iruñea, Elizondo eta Baigorritik etorritako gaita-jotzaileekin batera, txistulariak eta trikitalariak ere izanen dira. Aurkezpena egin eta gero, frontoiko plazan beste hainbat dantza eskainiko dira eta konpartsari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko da.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

AMAIRU BAR

ETXEGO PIZZAK, KOPA, BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILU LAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu? mailope@labrit.net



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

EUSKAL HERRIA



Euskaraldian izen emateko epea zabalik!

Azaroaren 20tik abenduaren 4a izanen da Euskaraldiaren bigarren edizioa eta irailetik aurrera eskualdean egitasmoa martxan jartzeko batzordeak aurtengo lanketari ekingo dio. Aurten lau egun gehiago izanen ditu Euskaraldia, 15 egun guztira. "Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" da oraingoan hautatutako leloa, izan ere, aurten Ahobizi eta Belarriprest rolekin parte hartuko duten norbanakoez gain, entitateei ere parte hartzeko gonbidapena luzatuko zaie Ariguneak izeneko espazio edo guneen bitartez. Ariguneek euskaraz hitz egiteko aukera bermatuko dute, izan entitate barruan edo izan entitateak herri-tarrek duen harremanean. Talde hauetako kideek Ahobizi eta Belarriprest moduan arituko dira, baina ariketa modu kolektiboan gauzatuko dute Ariguneetan. Ariguneak mota guztietako entitateek eskainiko dituzte: udalak, kiroldegiak, kultur etxeak, enpresak, kooperatibak, elkarteak, kultur eta kirol taldeak eta baita merkataritza eta ostalaritza arlokoak ere.

Euskaraldiaren helburu nagusia herritarren hizkuntza ohiturak aldatu eta euskararen erabilera handitzea da. Aurtengo edizioan parte hartzeko epea irekiko da irailaren 24tik aurrera. Entitateek izen emateko epea aldiz irekita dago eta irailaren 27an amaituko da. Animatu eta eman izena www.euskaraldia.eus atarian!

LEKUNBERRI

Beigorriko Taldekako I. Txapelketa



Beigorri parkeak eta Lekunberriko Udalak Begorriko Taldekako Txapelketa antolatu dute. Lau lagunez osatutako taldeen helburua, zirkuituak ahalik eta azkarren egitea izanen da. Talde bakoitzak arnes bat izango du eta erreleboka arituko dira. Talde bakoitzak lau aukera izango ditu, zirkuitu bakoitzean, taldeko emaitza hobetzeko. Kategoria bakoitzean denbora onenak lortzen dituzten 4 taldeak finalera pasako dira. Irailaren 5ean hasiko da txapelketa, eta finala urriaren 10ean, larunbatean, izango da.

23

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS


Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Beteluko Hirigintza Plana ikusgai izanen da udaletxean



Joan den abuztuaren 20an Beteluko Udalak hitzaldi bat antolatu zuen Hirigintza Plana aurkezteko.

Covid-19 dela eta, herritarrek alde zuzenetik izena eman behar izan zuten, edukiera kontrolatzeko, nahiz eta azkenean ez zen toki faltagatik arazorik izan.

Lurralde Egituraren Egitura Ereduari jarraipena emanez, zehaztasun gehiagorekin aurkeztu ziren Betelurako aurreikuspenak. Hilabete hauetan zehar, informazio gehiago jaso ahal izan da, batez ere, erreka inguruan. Urpetu daitezkeen eremuak, urperatze horiek saihesteko hartu daitezkeen neurriak eta eraikinak egiteko garaian erreka-eremuko distantziak eta eraikitze baldintzak besteak beste bere protagonismoa izan zuten hitzaldian. 2015. urtean udalak

egindako azterketa hidraulikoko informazioa oso kontuan izan da.

Egiturari dagokionez, Beteluk, orain arte bezala, barneko espazioetan eta gaur egungo nukleoaren inguruan hazteko borondatea dauka, etxebizitzak sakabanatua eraikitzea saihestuz. Ibilgarritasuna eta bereziki aparkalekuen beharra aintzat hartzen da. Hori dela eta etxebizitza berri bakoitzeko aparkaleku bat sortu beharko da eremu publikoan.

Arlo konkretuei dagokionez, azpimarratu daitekeena zera da: Irihaundiko jarduera ekonomikorako eremua, Olanotako eremu erreserba (Wisco enpresaren ustezko handitze-ko eskaera bati erantzun ahal izateko) eta modu berean Irigoien Auzoan eremu baten erreserba (Bainuetxe baten proiektua gauzatu ahal izateko).

Parte hartu zuten herritarren aldetik, etxe zaharrituen arazoa nabarmendu zen, izan ere, etxebizitzak garatzeko baliagarriak izan daitezkeelako Betelun salgai dauden hainbat etxe. Datozen asteetan, Planaren dokumentua udaletxean ikusi ahal izango dute herritarrek, hurrengo pausoak ematen hasi baino lehen.

Hurrengo pausoa, Udalaren behin behineko onarpenera izango da (urria aldera) eta orduan epe bat irekiko da modu formalagoan aztertu eta alegazioak egin ahal izateko nahi izan ezker.



ASEGURU AHOLKULARIAK
Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



Bigarren mailara ezin iritsi

Espainiako Futbol Federazioak 2019-20 denboraldia amaitutzat eman eta gero, Beti Kozkorreko hirugarren mailako taldeak bigarren urtez jarraian igotzea jokatzeko aukera izan zuen uztaileko azken asteburuan. Bigarren B mailara igotzea zegoen jokoan, baina egindako ahalegin eta jarritako ilusio guztia ez zen aski izan Mutilverari aurre egiteko. Bat eta hutsean gelditu zen markagailua. Azken bi urtetan lortutako mailari esker bigarren B maila ia ukitzen egon da Lekunberriko Kluba eta behingoz hastear den denboraldi honetan horixe izanen dute helburu. Horretarako dagoeneko hasiak dira taldeko jokalarien joan-etorriak. Fitxaketa berrien artean daude, Errealetik etorritako Ibai Salaberria, Valle de Egüesen ibilitako Adrian Santano eta San Juan Taldea utzi berri duen Aitor Iriarte. Bestalde, Beti Kozkor Klubean izen-emateko epea zabalik dago jada info@betikozkor.com edo 679 938 087 mugikor zenbakiarekin bitartez.

Hirumuga Park, bizikletarekin gozatzeko eremu berria

Mendiko bizikletekin ibiltzeko zirkuitua egokitu berri du Lekunberriko Udalak Lekunberri Bike taldearekin elkarlanean. Hainbat bide, jauzi, kurba aldapa eta oztoporekin jolasteko aukera ematen du parkeak. Bi ibilbide egokitu dituzte: bata hasiberrientzako eta bestea jaitziera gogorragoekin ausartzen direnentzako.



Irailaren 7an emanen diote hasiera ikasturteari Larraungo Pilota Eskolan

Uda honetan zehar Larraungo Pilota Elkarteko pilotariek hainbat partida jokatzeko aukera izan dute. Alde batetik, Albiasu, Errazkin eta Astizko plaza irekietan, "Pilota plazara" ekimenaren baitan, lagunarteko partidak jokatu zituzten elkarteko neska-mutikoei. Eta bestetik, Goizueta eta Leitzaren kontrako herriarteko jardunaldiak ere izan zituzten.

Babes neurrien protokoloa aintzat hartuko den arren, irailean ikasturtearekin batera ekingo diote pilota eskolei. Esku pilota edota pala gustuko baduzu irailaren 7tik aurrera proba dezakezu Larraungo Pilota Eskolan.

Informazio gehiago:

larraunpe@gmail.com / 675 210 254.



“Herritarrak, bertara etortzen hasten direla ikustea pozgarria da”

Osasun krisiak enpleguari nola eraginen dion jakitea oraindik zaila den arren, badira egoera honen erdian euren lan erronkei inoiz baino seguruago heltzea erabaki dutenak. Sara Lobo altsasuarrak Lekunberrin dagoen Charo Marinen ile-apaindegia hartu berri du.

Uztailean hasi zinen zure kontutik Lekunberriko plazako ile-apaindegian lanean...

Bai. Ni altsasuarra naiz eta etxealdia- ren aurretik gaur egun nire bikotea dena ezagutu nuen. Bera lekunberriarra da eta beraren bitartez ezagutu nuen Charo Marin. Kasualitatez erretiroa hartzeko gogoarekin zebilela aipatu zidan eta ni neu ere ile-apaintzailea nintzela esan nion. Berak eskaini zidan lokala hartzeko aukera eta hamabost egunen bueltan erabakia hartua nuen.

Aurrez ere honetan ibili izan zara lanean?

Bai. Betidanik gustatu izan zait, ume- tan ere ilea nik neuk mozten nion neure buruari. Ondoren, ile-apaintzaile ikasketak egin nituen eta lehen urtean jada lanean hasi nintzen. 2009an izandako krisiak eragina izan zuen sektorean eta gero beste zen- bait lanetan aritu naiz, baina banuen arlo honetara bueltatzeko gogoia.

Bizitzen ari garen egoera honetan halako pausoa ematea ez da erraza izanen...

Halako aukera atera zitzaidala ikusita heldu beharra niola pentsatu nuen. Bikoteak eta senideek ere animatu ninduten eta ez naiz damutzen. Maiatzean hartu nuen erabakia eta ekainean oraindik Charok lanean jarraitzen zuen bitartean lokalari itxura berria ematen hasi nintzen asteburuetan.

Eta zer moduzko harrera izan duzu?

Oso ona. Charok aurrez zituen bezeroez gain, jende gazteagoa ere etortzen hasi da. Inguruko jende askok Iruñeko ile-apaindegietara joateko ohitura du eta bertara etortzen hasten direla ikustea pozgarria da.

Nolabait hutsetik ez hastea lagun- garria izanen da, ezta?

Bai, noski! Charok adineko pertsona

“Jubilatuaren Egunean erretiratuta dauden bezeroei beherapena eskaintzen diet”

eta gizonezko asko zituen bere bezeroen artean.

Zeintzuk dira eskaintzen dituzun zerbitzuak?

Bizarrak txukundu, ilea moztu, orraztu, erruloak, kolorea nahiz metxak eman... Etorkizun hurbilean, hainbat estetika zerbitzu eskaintzea ere gus- tatuko litzaidake.

Covid-19aren aurkako zein neurri hartu behar izan dituzu?

Ordu erdiro hartzen ditut bezeroak. Gehienez ere lau pertsona egon daitezke ile-apaindegi barruan eta halakoetan lokala ongi aireztatuta egon dadila saiatzen naiz. Horrez gain, bezeroek maskarekin etorri beharra dute. Hori da ile-apaindegi- ra etortzeko baldintza eta egia esan oraindik batzuei kosta egiten zaie se- riotasunez hartzea. Batzuek galdetu ere egiten didate: “Hau jartzea ez da beharrezkoa, ezta?”. Ez da erosoia bai- na beharrezkoa da.

Eta horrez gain, garbitasuna man- tentzea inoiz baino garrantzitsu- goa izanen da...

Bai. Guraizeak, orrazeak, tresneria eta geruza guztiak desinfektatzen ibil- tzen naiz aldiro. Hori izugarri aldatu da ile-apaindegien egunerokoan. Baina jada automatizatzen hasi nai- zela ohartu naiz, ia ohartu gabe ate- ratzen zaidan zerbait da.

Bezeroengan kezka nabaritu duzu ile-apaindegira joaterakoan?

Bai, batzuk arduratuta daude. Adine- ko bezero zenbaitekin bakarka egin behar izan dut lan eta zenbait kasu- tan euren etxeetara ere joan naiz.

Etzeko zerbitzua ere ematen dut, batzuk ezinezkoa dutelako ile-apaindegira etortzea.

Zein ordutegitan eskaintzen duzu zerbitzua?

Astelehen arratsaldetik hasi eta ostiralera bitarte goiz eta arratsalde eskaintzen dut eta larunbat goizetan ere zabaltzen dut. Eta asteazkenetan "Jubilatuaren Eguna" delakoa egiten dut, erretiratuta dauden bezeroei beherapena eskainiz.

Nolatan eskaintzen duzu beherapen hori?

Erretirodunen pentsioak oso baxuak dira kasu askotan eta jende askorentzat ile-apaindegira etortzea luxua da. Lanean egon nintzen ile-apaindegietako batean astean behin beherapena eskaintzen genien erretirodunei eta hemen ere hala egitea pentsatu nuen. Jendea erakartzeko modu bat da eta horrez gain garrantzitsua iruditzen zait nolabaiteko erraztasuna eskaintzea.

Nola ari zara ezagutzera ematen?

Batez ere sare sozialen bitartez. *Instagram* eta *Facebook* kontuak daukat eta askok horien bitartez jakin dute ile-apaindegiko aldaketaren berri. Horretan denbora inbertitzen ari naiz, azken batean ahalegina eskatzen du egunero argazkiren bat igotzeak, egindako lanen argazkiak. Baina jendeari hemen eskaintzen ditugun zerbitzuak erakusteko modurik errazena da. Hortik aurrera



ahoz ahokoa izan ohi da publizitate-rik onena.

Zer diote zure ingurukoek?

Batzuk harrিতa egoera honetan halako erronkari heldu izanagatik. Nire herrikoek urrutiegi joan naizela esaten didate, baina dagoeneko lagun asko etorri zaizkit ile-apaindegira. Aldaketa handia izan da denbora gutxian, baina oso pozik nago.

Harremanetarako:
948 50 41 56 / 689 588 243.



Herritarren aldetik babes eta erantzuna jasotzea eskertzeko da

Azken urte hauetan lan asko egin al dituzue herrian?

Egia esan orain dela zortzi urte inguru auzolanak berreskuratu genituen. Jende dezente biltzen da eta lan mordo bat egiten dira.

Urtean zenbat auzolan egiten dituzue?

Beharrezkoak gutxienez bi izaten dira, baina lau deialdi egiten ditugu eta bizitza bakoitzetik beharrezkoa da bitan gutxienez parte hartzea. Bat festak baino lehen izaten da eta bestea ehiza garaia hasi aurretik. Horiek finakoak izaten dira eta gainerakoak urtean zehar, lanaren eta eguraldiaren arabera.

Eta zein lan egiten dituzue auzolanean?

Denetik pixka bat, baina orokorrean mantentze lanak izaten dira: belarra moztu, itxiturak konpondu, txabola margotu, pistak egokitu...

Baina auzolanez gain bestelako inbertsioak ere egiten dituzue...

Bai. Herriko iturria berritu genuen eta baita kanposantua ere. Hormahilobieie teilatua berritu genien eta errautsen kutxak sartzeko nitxoak

“Diru-laguntza bat eskatu dugu zenbait pista berritzeko eta abereentzako ur-guneak jartzeko”

egin genituen. Oraingoz behintzat ez dugu espazio gehiagoren beharrik han. Eta aurten haurren jolas parkea berritu dugu.

Orain gutxi konpostagailuak ere jarri dituzue herrian, ezta?

Bai. Mendiialdea Mankomunitatetik aurre begira esku artean zuten egitasmoa azaldu ziguten eta konpostagailuak jartzeko erabakia hartu genuen. Etxe askotan orain arte konpostagailurik ez zuten arren, gehienek baratza egiten dute eta jende askok portzentaia handi batean konposta egiten zuten jada. Orain etxe etxeko zenbait konpostagailu banatu dira eta horrez gain auzo konpostagailua jarri dugu frontoia- ren atzealdean. Aurkezpen bat egin genuen Mendiialdeko teknikariek herriarrei funtzionamendua azaltzeko eta momentuz jendeak konposta egiteko borondatearekin da-goela dirudi.

Aurrera begira zein beste proiektu dituzue esku artean?

Diru-laguntza bat eskatu dugu zenbait pista berritzeko eta abereentzako ur-guneak jartzeko. Ez dakigu diru-laguntza horrek aurrera egingen duen edo Covid-19ak sortutako egoera berriak eragingo ote dion. Zain gaude. Eta bestetik datorren urtean basogintzako diru-laguntzak begiratzen gabiltza. Herri txikia dugu eta mendian ateratzen dena normalean ez da saltzen, herriarentzako lo-teak egiten dira.

Zein izaten da Gorritiko Kontzejuaren saltsa sortzen duen gaia?

Zorionez eta oraingoz behintzat ez dugu arazorik izan. Oso ongi konpontzen gara eta auzolanetan ere herritarrek ongi erantzuten dute. Herritarren aldetik babes eta erantzun hori jasotzea eskertzeko da. Kontzejuaren papera gure kasuan herriko beharrak zeintzuk diren ikusi eta auzolanak antolatzea da. Eta bestetik diru-laguntzak eskatzeko aukerak sortzen direnean horiek eskatzea inbertsio txikiak egin ahal izateko.





Zenbait biztanle ditu gaur egun Gorritik?

Erroldatutakoak 90 eskas eta egunerokoan 70-80 lagun bizi gara. Egia esan azken urtetan berdintsu mantentzen da herria. Kanpotik hona bizitzera etortzeko aukera gehiegi ere ez dago, baina bertakoekin eusten diogu. Zorionez apenas dugu etxe hutsik.

Nola bizi izan duzue herrian Coronavirusak sortutako osasun krisia?

Ez du zerikusirik herrian edo hirian bizitzeak, erabat ezberdina izan da. Hemen nabaritu da, horixe baietz, baina mendira irteteko erraztasun gehiago izan ditugu. Hala ere, etxealdiaren hasieran nabaritzen zen beharrezkoa zutenek baino ez zirela ateratzen la-

nera. Elkartea ere itxi egin zen eta uztaile arte itxita egon da.

Turismoaren gorakada nabaritu al duzue?

Bai. Badirudi orain jendeak hirietara behar baino gehiago duela mendira joan eta egun askotan mendia kotxez eta furgonetaz beteta egon da ingurua.

Aurten zuenean ere ez da festarik izan...

Ez. Hasieran zalantzan egon ginen antolatu edo ez. Ez genekien aukera izan ote genuen, baina batez ere adineko jendearengan beldurra antzematen genuen eta azkenean ez egitea erabaki genuen. Eta pena da herrian giro ederra sortzen delako festetan, baina aurten ezinezkoa izan da.

Hirugarren legegintzaldia du Imanol Perezek Gorritiko Kontzejuan eta azken urte hauetan egindako lanaren berri eman digu.



AEKn, IRAKASLE BATEK BIK BESTE BALIO DU.

Irakasten daki eta ikas dezazun nahi du.



EUSKARA- IKASTAROAK

Jonnie Urrestorazu Altzaparua, AEK-ko irakaslea.

Larraungo AEK

- Maila guztiak
- Guraso taldea 5/6 ordu astean
- EGA azterketa prestatzeko ikastaroa
- SAKONTZEN (arauak bermakusi, ohiko akatsak zuzendu...)
- Taldea edo autoikaskuntza
- Mintzakide egitasmoa (Mintzapraktika egiteko taldeak)

INFORMAZIOA ETA IZENA EMATEA

948 604 704 edo 607 622 102 | larraun@aeek.eus

Izena eman irailaren 27a baino lehen
Artzanegi 6, Lekunberri



DIRULAGUNTZAK

Iparraldeko Euskara Mankomunitateak diruz lagundutako ikastaroak

LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO MOZIOA

Larraungo Udalak, Bardeako tiro poligonoaren aurkako Batzarrak bidalitako mozioarekin bat eginez erabaki du:

1. Defentsa Ministerioari behar diren azalpenak eskatzea, azken urteotan Bardeako tiro eta bonbardaketa poligonoan izandako suzko maniobren gehikuntza justifikatzeko, bai eta horietan izandako armamentuaren ezaugarri buruzko informazioa ere (ingurumenaren eta segurtasunaren ikuspuntutik).

2. Bardeako tiro eta bonbardaketa poligonoa eraitsi behar dela aldarrikatzea, baita Parke Naturalaren ingurumen irudia Bardeako lurralde osora zabaldu behar dela ere.

3. Bardeako Komunitateari proposatzea, hitzarmena indarrean dagoen bitartean, Barne Ministeriotik jasotako kanona herrialde horietan diharduten GGKEen bidez herri eta pertsonetan gerrek eragindako kalteak arintzen laguntzeko soilik erabili ahal izatea.

4. Aurreko puntua onartzen ez bada, edo onartu ondoren Bardeako Komunitateak exekutatu ez bada, Tuterako Udalarri tiro-poligonotik jasotako dirua bakarrik

erabiltzeko eskatzea, gerrek herri eta pertsonengan eragindako kalteak arintzeko, herrialde horietan diharduten GGKEen bidez, edo gerra iheslarien harreran zuzenean inbertitzeko.

5. Onartutako erabakiak Nafarroako eta Espainiako gobernuei (Defentsa Ministerioa), Bardeako Komunitateari eta komunikabideei igortzea.



Antzonia
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONITZA
634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN
GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

panaderia okindegia
GALBURUeco
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

▶ AGENDA



IRAILA

11 - "Ur eta Lur" proiektuaren aurkezpena eta mahai ingurua Joseba Otondo eta Iker Manterolarekin.

12 - Larraungo Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren ekitaldia, arratsaldeko 18:30ean, **Lekunberriko** Vegan.

13 - Auzolana **Mugiron**. Larraun ibaiaren garbiketa.

15 - Lehen sektorea bultzatzeko Araitzen egindako ikerketa eta galdeketa-
ren emaitzen aurkezpena, arratsaldeko 18:00tan, **Araizko** udaletxean.

26 - Tailerra erdaraz: "Agricultura ecológica, ¿En qué consiste y por qué interesa?". **Larraungo** udaletxean.

**INFORMAZIO GEHIAGO
ESKURATZEKO, SARTU
WEBGUNEETAN**



Larraungo Udalaren
Facebook orrialdea:



Lekunberriko Udalaren
Facebook orrialdea:



Araizko Udalaren
web orrialdea:



31

▶ MERKATU TXIKIA

LAN BILA

▶ Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

SALGAI

▶ Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIROCA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 870 837 (Bixente).

EROSTEKO

▶ Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.

TAXILON

Lontxo
Otamendi
Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



2020KO EGITARAUJA

ARTISTEN EGONALDIA

Irailaren 1etik 8ra.

Zarateko pagadian bere obra eraikiko duten 10 artistentzako egonaldia. Urria bitartean ikusgai egongo da.

ZUMETA BIHOTZEAN

Irailaren 5etik 26ra.

Erakusketa Zaratetxean, Jose Luis Zumeta artista handiari egin nahi zaionomenaldian 20 artistek lan bat erakutsiko dute.

INAUGURAZIOA

Irailak 5, larunbata.

Jaialdiaren Inaugurazio ofiziala eta erakusgai dauden obrei bisitaldia bertso eta musikaren laguntzaz, festa giroan.

"MUGAK SAROI ERDIAN"

Irailak 11, ostirala.

Xabier Kerexetaren hitzaldia Gipuzkoako Gordailuarekin elkarlanean "Mugarriak saroi erdian".

ZUMETARI OMENALDIA

"JUAN SEBASTIAN ELKANO"

Irailak 11, ostirala.

- Azken Mugako artistek mural bat egingo dute.
- Euskal Barrokensemleren kontzertua "Juan Sebastian Elkano".

RAPA ZARATEN

Irailak 18, ostirala.

Jon Tolosa "Nikotina" rapero gaztea eta Martintxo Arakama "Little Martin"-en emanaldia.

HERRI KIROLAK

II. GAZTA TXAPELKETA

BERTSO EGUNA

Irailak 19, larunbata.

- Gipuzkoa eta Nafarroako gazteen arteko Herri Kirolak.
- II. Aralarko artzai gazta dastaketa eta lehiaketa.
- Zarateko bosgarren bertso saioa.

ERREMENTARI FILMA

Irailak 25, ostirala.

Paul Urkijo zuzendariaren filma.

ET INCARNATUS KONTZERTUA

Irailak 26, larunbata.

Udazkeneko ekinozioaren ospakizunerako hain bat gonbidaturekin proposaturiko egitarau berezia Zarateko basoan.


AZKEN MUGA